

ZER DA?

Jasaten ari garen mundu mailako pandemia dela eta, eta egoera kontuan hartuta, ez da posible izan ohiko udako programa bat garatzea. Hala ere, eta arrazoi beragatik, argi ikusi dugu nerabegarotik, gaztarotik eta haien familietatik gertu egoteko proposamen bat garatzeko beharra. Kolektibo horien beharrei erantzuna ematea ezinbestekoa baita (osasun emozionala, errefortzu akademiko...).

Errezeta magikorik eta formatu bakar bat ez dagoela jakitun izanik, adinetan bereizitako hiru programa planteatzen ditugu, guztiak malguak eta unean uneko segurtasun, osasun eta higiene neurrietara egokitzeko modukoak.

PROGRAMAK:

Talkako udako programa

Talkako udako programa Etxebarrin, udalerrian, garatuko da ia osorik. Hainbat jarduera burutuko dira, COVID-19a dela eta, nerabeek izandako eragin eta zailtasunak lantzeko (osasun emozionala, errefortzu akademiko, osasun fisikoa eta elikadura, etab.). Horrela, haien beharrak asetzen saiatuko gara.

- **Adinak:** Programa 2006an eta 2007an jaoitako nerabeentzat zuzenduta egongo da (DBH 1 eta 2.maila)
- **Datak:** Ekainaren 29an hasi eta Uztailaren 24 bukatuko da. Programa bi txandatan banaduta egongo da, eta lehentasun-ordenaren arabera aukeratu beharko da, eta biak aukeratu ahal izango dira. Plazak, bizi garen garenegoera dela eta, murriztu egin dira, eta horrek zatiketa honetara eraman gaitu. Gutxienez hamabostaldi bateko parte-hartzea ziurtatzen saiatzeko.
 - Lehenengo txanda: Ekainaren 29tik Uztailaren 10era
 - Bigarren txanda: Uztailaren 13tik 24ra
- **Ordu-tegiak:**
 - Herrian burutuko diren ekintzak: 10:30 - 14:00
 - Eguneko ekintzak: 10:30 - 16:30
- **Tokiak:**
 - Talka Gaztegunea eta Bekosolo parkea.
- **Prezioak:**
 - 20€/astea

Udako gazte programa

Udako gazte programak eguneko jarduerak izango ditu eta udalerrian proiektu komunitario bat garatzeak du helburu. Aterpetxe batera ere egingo dugu ihesaldia, konfinamenduan zehar eman diren beharrak asetzeko asmoz.

- **Adinak:** Programa 2004an eta 2005ean jaiotako pertsonentzat zuzenduta egongo da (DBH 3. eta 4.maila)
- **Datak:** Uztailak 6tik 16ra. Bizi dugun egoera dela eta lekuak murriztuak ikusi dira, horrexegatik programa bitan banandu dugu ahalik eta pertsona gehien parte hartu dezaten. Dena den, datak berdinak izango dira baina ez dute espazio berdina konpartituko.
- **Ordutegiak:**
 - Herrian burutuko diren ekintzak: 10:30 - 14:00
 - Eguneko ekintzak: 10:30 - 16:30
- **Tokiak:**
 - Zintururi parkea eta Mugarri Gaztegunea
- **Prezioak:**
 - 60€



Mugarriko auzolana

Kasu honetan herrian garatuko den boluntariotzaren bitartez saiatuko gara nerabeen beharrak asetzen. Izan ere, aterpetxe batean itxiko dugu ekintza egindako lanaren ebaluaketa egiteko eta aisialdi ekintza batzuk burutzeko.

- **Adinak:** Programa 2003an edo lehenago jaio diren nerabeei zuzenduta doa (lehenengo batxilergotik aurrera).
- **Datak:** Ekainak 29tik uztailak 20ra
- **Ordutegiak:**
 - Burutzen duten boluntariotzaren arabera izango da
- **Tokiak:**
 - Egin beharren arabera. leku batean edo bestean burutuko dira ekintzak
- **Prezioak:**
 - Ez da egongo kuotarik burutuko duten ekintzak direla eta (boluntariotza)

TALDEAK:

Lehenengo bi programei dagokienez, 10 pertsonako taldeak egingo dira hezitzailea barne. Taldeak finkoak izango dira eta ez dute erlaziorik edukiko beste taldeetako pertsonekin. Eguraldiak usten gaituen neurrian, ekintzak beti kalean burutuko dira. Ekintzaren bat aurrera eramateko ezgaitasunarekin topatu gaitzke eguraldiak laguntzen ez badu eta leku itxiak eskuragarri ez baditugu.

Hezitzaileek formakuntza berezia jasoko dute COVID-19aren prebentzioa eta babespen neurriak ahalik eta hoberen aurrera eramateko. Adibidez, neurri eta protokoloak, prebentzioak eta lan arriskuak, gaitasun sozialak eta emozioen kudeaketa eta ingurugiroaren heziketa besteak beste.

HIZKUNTZA:

Ekintza guztiak Euskaraz burutuko dira.

FAMILIEN KONPROMISUAK PROGRAMAN PARTE HARTZEKO

Izen ematea betetzeko, Etxebarriko Udaletxeak zehaztu dituen arauak onartzea ezinbestekoa izango da.

(Eranskinak dokumentuaren amaieran daude)

IZEN- EMATE MODUA:

Webgunean www.etxebarri.eus y [blog de los gaztegunes](http://blog.de.los.gaztegunes) www.mugarritalka.eus

Ekainak 12tik 15era (biak barne)

KONTUAN IZATEKO DATAK:

DATA	EGIN BEHARREKOA
Ekaina: 12-15	Izen-emateak
Ekaina: 18	Parte-hartzearen baieztapena
Ekaina: 22 - 24	Ordainketak